

Garizumea, pazko Jaietarako prestaerea Bizkaiko eleiz batzar nagusirako oinkadea

Zezeilla, orain idazten danez otsaila, urteko illetan laburrena da, baiña ezelan be ez utsena, nortasunik gitxienekoa. Ez dauka udabarriko lorarik, neguaren ardatzetik gertuegi dago eta. Leenagoko Kandelario eta San Blaseta bedeinkapen famatuekin asi eta Aratuste jai giro zaratatsuen ondoren Garizumara sartzan gara bete-betea.

Illaren 12an asten da aurtengo Garizumea, legezko danez, bijili eta barau eguna ditu atariko Austerre egunak. Garizumea aitatzerakoa zer esan gura dauan be gororatu egin bearko dogu, ez ez dakigulako, gauza garrantzitsuak eskuartein bein eta barrero artzea, egunen joanak ezarri deuten autsa kentzea komenigarri dalako baino.

«Garizuma-aldia Pazkoaren ospakizuna prestatzeko da: Garizumako liturgiak Pazko Misterioa ospatzeko prestatzen ditu, bai kristaugaiak, kristaugintzea eurongan maillaz mailla egiñez, baita fededunak be, euren bateoa gogoratu eta penitentzia egiten dabelarik», dinosku meza-liburuak asierako oarretan.

Kristautasunaz arduraturik bizi diran danak artzen ditu: leenengo pausuak emotera doazenak, aspaldietan emon eta aurrerantza doazenak. Ez dago salbuespenik. Baina ez da penitentzia giroan murgildurik, aurreragorako ikuspegi barik lausoturik gelditzea. Pazko jaietarako prestakerea da. Kirolariak pausu eta aalegin aundiak eta saiaturak egin bear izaten ditu zaulitasuna eta iraupena lortzeko. Eta guztia, azken baten, ekinaldi gitxi batzuetan garipenaren poza eskuratzeko. Antzerako zerbait dogu Garizuma-aldia, saiaketa bat esango neuke, kristoren Pazkoan gure

poza beteagoa izan daigun egiten dogun ekinaldia. Kristoren Biztuereak emoten deutso zentzuna gure Garizumako penitentzia eta otoitzaldi saiaturari.

Edonoiz zauli egoteko egiten dan aaleginak be badau bere meritua, baina aparteko elmuga batzuk jarriaz ori menperatzeko egiten diranak biziagoak izaten dira. Eta Bizkaiko kristinauok, azken bolada onetan, Eleiz Batzar Nagusia daroagu eskuartein. Talde lan ugariak egin dira an-or-emen. Eleizea, etheen artean kanpantorre eta guzti, Gotzain, abade, fraile eta mojak eta katekistak baino geiago da, orreek be Eleizearen atal izanarren, Salbamen Istoriaren zirriborroak egiten diardugun Jaungoikoaren Erria da Eleizea, kristinau guztiok osotzen dogun alkartea.

Batzar Nagusirako prestaeretan pausu aundi batzuk emonik dagozan arren, oraindino be prestaerea birfintzen ekiteko aukeran gagoz era orrexetarantz jo bearra daukagu. Orain artean egin dogunari begirada bat emon, jokoan parte artzen goazan ala ez ikusi, batzarretan esan ditugun gauzak buruz diñoguzan ala barruko kezka bizi ditugun oartu, eta bateoaren ondorenez Jesusi emondako berbeari sendoago eusteko erabagia artzeko pausoak emotea, ez litzateke Garizuma-aldirako ekintza makala izango. Bestea, inoren pentsura gelditu, orain artean be bota duskuezan danak jaso dirala eta egonean egoten gelditzea, ez da kristinau jokerea.

Aurtengo Garizumea Kristoren Pazkoarako eta Bizkaiko Eleiz Batzar Nagusiaren Pazkoarako benetako oinkada izaterik lortuko ete dogu?